

Arlep Barrutiko IV. SHMAren otoitza

Gure Jaun eta gure Aita,
Zuk nahi izan duzu La Salleko san Joan Bautistaren proiektua
fedea, zerbitzu eta elkarreagatik ezagutua izatea,
espiritualtasun xume eta konprometitua garatzen
eta haur eta gazteenganako maitasun sakona sustatzen duelako.

La Salleren urratsak ausardiaz eta itxaropenez jarraitzen ditugun
Salletar asko gara gaur egun,
Jesusen jarraitzaile gisa dugun bokazioa egunez egun bizitzen
eta hezkuntzaren bidez elkartasunezko etorkizuna amesten dugunak,
“elkarrekin eta asoziazioz” aurrera eginez.

Badakigu, zure errukiaz,
gauza guztiak berriak egiten dituzula
eta denok gonbidatuta gaudela
zure mahaia partekatzerara anaia eta arreba gisa.

Salletar Hezkuntza Misioaren IV. Asanbladaren alde eskatzen dizugu.
Jakin badakigu “Elkarrekin zerumuga garena”
eta elkarrizketa- eta bereizmen-bide honetan
parte hartzen duen Arlep Barruti osoaren alde erregutzen dizugu, bereziki.
Lagundu iezaguzu zure deia onartzen, zaintzen eta partekatzen.

Bidal iezaguzu zure Espiritua garaien zeinuak irakurtzen jakin dezagun,
eraman nahi gaituzun zerumugak deskubritzen,
gure aniztasuna baloratzen, zure deiarri zintzo erantzuten,
eta sendo ezazu
haurren eta gazteen zerbitzura den gure Salletar Familia.

La Salleko san Joan Bautista, otoitz gure alde.
Bizi bedi Jesus gure bihotzetan. Beti!